Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

236 zenbakia
2022 **ekaina**

Prest!

BERBETAN: **EVA FERREIRA** EHUKO ERREKTOREA

ERREPORTAJEA: **HIZKUNTZEN ERABILERAREN KALE NEURKETA 2021** BARKUA: **UDAKO SOLSTIZIOA DEUSTUALDEAN**

TOKIKOM

32-233-234-235-236

Sustatzailea

berbaizu
euskara elkartea

Babesleak

intxixu ikastola

txantxiku
.Deustuko Aisialdi Taldea.

erraldoien ondalan konpartsa

BIHOTZ ALAI FOLKLORE DANTZA TALDEA

ARRAVN TALDEA DEVSTV

DEUSTUKO IKASTOLA

DEUSTUKO JAI BATZORDEA

DEUSTUKO GAZTE LOKALA

ELORRI BERTSO ESKOLA

eaj pnv deustu

S.D. DEUSTO

ehbildu

zirikatzen!

DEUSTUKO GAZTE ASANBLADA

EGUNSENTIA ESKAUT TALDEA 1982TIK

ernai Deustua

PARE HAUTSI DEZAKEN KATEAK

Bilbao

Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkartea da edukiaren erantzule bakarra

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

BASKale

Babestu Prest! urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Telefonoa .....
E-posta .....
Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

236 zenbakia
2022ko ekaina

aurkibidea

Angel Prieto Fidalgo - Atxarte Salvador Navarro — **Iritzia** — 4

Diego Irigoien — **Gureak kanpoan** — 5

e erreportajea — 6

"Gure esku dago testuingurua ulertu eta aurrera nola egin erabakitzea"

Euskararen egoera deskribatzea eta lan ildoak zehaztea du helburu Hizkuntzen Erabileraren kale neurketak. Zortzitan egin da dagoeneko eta Soziolinguistika Klusterra azken 5 edizioetako ikerketaz arduratu da.

Deustuko eskola — **Eskolak** — 10

Bilbo irudikatzeko beste armarri bat (1931) — **Behin batean** — 12

Marra berdeez harago — **Artikulua** — 14

b berbetan — 16

EVA FERREIRArekin

2021eko urtarrilean izendatu zuten Eva Ferreira (Barakaldo, 1963) Euskal Herriko Unibertsitateko errektore. Ibarrekolandan bizi da eta horregatik eta EHUko bigarren emakume errektorea izateagatik elkarrizketatu dugu ekaineko PREST! aldizkarian. Errektore gisa dituen ideia eta kezken inguruan aritu gara batez ere berarekin.

Bilbao Goyoaga enpresa (1982) — **Irudiak berbetan** — 21

DEUSTUKO ERRIBERA "Hamaika Begirada" liburu-dokumentalaren aurkezpena

JAIAK Udako solstizioa ospatu dute Deustualdean

PINTXODROMOA Parmigiana de melanzane

KULTUR TXOTX Antxon Agirre eta Maite Sarasola Isazelaia

barkua bete herba — 24

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Nerea Cubillo Urkizu
Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurraga
Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura
Argazkiak: Ecuador Etxea
Publizitatea: Nerea Cubillo Urkizu
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Laura Freijo Iglesia
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01

Angel Prieto Fidalgo
Ikerlaria

Belarra mozteko maiztasuna

Udalak berdeguneak txarto zaintzen dituela entzun dut askotan. Eta ados nago ideia horrekin, baina ez ideia horren atzean dagoen zergatiarekin. Askok Bilbo inguruan dauden zelaietako belarra luze ikustea ez dute gustuko. Eta udalak gutxitan mozten duela kexatzen dira. Ni, ostera, erabiltzen ez ditugun landetako belarra hain sarritan moztearen kontra nago.Polinizazioan eta biodibertsitatean aurkitu ditzakegu auzi honi erantzuna emateko arrazoi batzuk. Guztiok dakigunez, intsektu polinizatzaileak (adibidez, erleak, tximeletak edo euliak) oso garrantzitsuak dira landareen polinizaziorako, hau da, landareen ugalketa prozesurako. Eta landareak beharrezkoak dira intsektu horientzat. Belarra eta landareak mozten baditugu, intsektuak eta landareak gune hauetatik desagertuko dira.

Gure lurzoruetan daukagun biodibertsitatea mantentzekotan, ez genuke belarra hain sarritan moztu beharko. Izan ere, belarrak eta landareak mozteak beste arrisku handi bat dakar: landare inbaditzaileak agertzea. Landare inbaditzaileak hazteko momentu aproposena lurzoru bat ebaki berria dagoenean omen da. Gure biodibertsitatea mantentzeko, landareak hazia bota ostean baino ez litzateke moztu beharko belarra. Horregatik, gure barrutiko hainbat elkartek udalak gune berdeetako landareen zentzuzko mozketa selektiboa egin dezan eskatuko dugu. Bide-ertzen kasuan izan ezik, sarriago ebakitzea eskatuko baitugu. Beraz, hilabete batzuk barru ikusten baduzue gune berde batzuetako landareak eta belarrak luze daudela, ez kezkatu, intsektuak elikatzen ari dira eta.

Atxarte Salvador Navarro
Hego-haizearen zurrunbiloan

Zein nekeza den euskaldun izatea!

Soziolinguistika Klusterrak egindako Euskararen kale erabilerari buruzko ikerketa berriaren arabera, azken urteotako bide beretik jarraitzen dugu, hau da, euskararen ezagutzak gora egiten duen arren, gero eta gutxiago erabiltzen dugu. Duela hamabost urte bezalaxe gaude, okerrago ere bai. Eremu euskaldunetan gero eta gutxiago hitz egiten da euskaraz, gainerakoetan, hobekuntza handirik ez. Euskararen Herria muturren aurrean lurruntzen ikusten ari garela dirudi. Gehien erabiltzen dutenak haurrak eta gaztetxoak dira. Baina gure inguru erdaldunean, behintzat, batetik, eskolak erdipurdi euskalduntzen du, eta, bestetik, gaztetxoentzat euskara eskola-orduetan erabiltzen den hizkuntza da, formala, akademikoa, beharra. Eskolatik kanpo erakargarria zaien (ia) guztia (pantailetatik sartzen dena, kasurako) gaztelaniaz edota ingelesez izaten da. Euskararena ez da gazteentzako Herria. Helduen kasuan, gazteenen antzera, esango nuke militanteagoak garela Euskaraz bileretan aritzeko, plazan edo tabernetan baino. Bestalde, aurrekoan euskal idazle entzutetsu batek esan bezala, dagoeneko euskara ez da euskaldun egiten gaituena, oposizioetan puntuak izateko bitartekoa baizik. Duela hamarkada batzuk argi zegoen Euskarak zer behar zuen bizirauteko: prestigioa, jakintza eremu guztietara zabaldu, modernizatu eta, berrikiago, garai teknologiko digitalen trenera igo. Eta bete-betean asmatu zela esan daiteke. Eta orain zer?

Diego Irigoien

Jatorria: Deustu
Bizitokia: Costa Rica

“Ezagutzen ditudan gauza guztietatik hain urrun egoteak asko erakutsi dit”

Testua: Alazne Carrillo

2018. urtean heldu zen Diego Costa Ricara. Industria Diseinuko Ingeniaritza ikasketak burutu ostean sistema jasangarrien diseinu masterra egin zuen, eta orduan hartu zuen bertara joatea erabakia, ikasitakoa praktikan jartzeko grinaz. Costa Ricako klima beroak eta olatuek ere erabaki horretan garrantzi handia izan zuten.

Zertan zabiltza orain Costa Rican? Proiekturen bat esku artean?

Urte hau emozioz betetakoa izaten ari da. Uztailean ezkonduko naiz eta nik neuk diseinatutako etxe bat eraikitzen ari naiz.

Modu profesionalean hasteko aukera gehiago izan dituzu bertan? Zergatik?

Permakulturaren eta diseinu jasangarriaren munduan zaila da soldata bat lortzea. Hemen kanpotar asko daude proiektu hauetan inbertitzeko gogoekin. Honek modu profesionalean hazten lagundu nau; azken 3 urteetan Kanadako pertsona batzuei permakultura finka bat zerotik diseinatzen eta eraikitzen lagundu diet.

Beraz, bertan EHn baino aukera profesional gehiago daude?

Ingeniaritza munduan ez behintzat. Euskal Herrian industrian eta antzeko sektoreetan aukera gehiago daudela esango nuke. Hala ere, hemen nitxo jasangarri espezifiko honetan, aukerak egon badaude, baina ez da erreza.

Zerk harritu zaitu gehien kulturari eta ohiturei dagokionean?

Orokorrean bizi erritmoa esango nuke dela gehien harritu nauena edo gehien nabaritu dudana. Hemen ez diote hainbesteko garrantzia ematen ordutegiei eta modu lasaiagoan bizi dira.

Oso desberdinak gara euskal herritarrok eta costarricarrak bizimoduari, harremantzeko erari edota aisia egiteko moduari dagokionez?

Kolonizazioren ondorioz kultura europarraren aztarna nabaria da. Gauza asko antzekoak dira baina badira desberdintasun ugari ere. Bizimodu sinple edo lasaiagoaz gain, aisialdian ere nabarmenak dira ezberdintasunak. Adibidez, ez dago hainbesteko gazte antolakuntzarik ezta Deustuko kaleetan asteburuetan bizi dugun girorik ere ez. Hala ere, karaokeak eta “cumbia” daude.

Klima aldaketa nabaria da. Zelan daramazu hori?

Beroa eta hezetasuna egunero ematen dira hemen, baina tenperatura ez da 30 gradutik igotzen. Euri denboraldian zehar (apiriletik abendura arte) izugarrizko ekaitzak egoten dira noizean behin. Nik ez dut hotza ondo jasaten, beraz hemen pozik nabil.

Zure bizitza asko aldatu da bertan zaudenetik?

Baietz esango nuke. Ezagutzen ditudan gauza guztietatik hain urrun egoteak asko erakutsi dit.

Zer egiten duzu zure egunerokotasunean? Eta aisian?

Normalean goizetan surfa egiten dut, ondoren lanera noa eta arratsaldean berriro surfa egiten dut ekaitzik ez badago. Aisian, aldiz, nire neska-lagunarekin edo lagunekin alboko inguruak esploratzen ditut eta noizbehinka parranda egiten dugu.

Harreman berriak egitea erreza izan da?

Harreman asko egin ditut eta jende asko ezagutu dut baina konfiantzazko lagunak aurkitzea kosta egiten da.

Zer da Euskal Herritik gehien botatzen duzuna faltan?

Familia eta lagunak, jai herrikoiak, kaleetan dugun giroa…

Bueltatzeko ideiarik daukazu?

Bai, ez dut unea gertu ikusten baina etorkizunean itzuliko naiz.

"GURE ESKU DAGO TESTUINGURUA ULERTU ETA AURRERA NOLA EGIN ERABAKITZEA"

Euskararen egoera deskribatzea eta lan ildoak zehaztea du helburu Hizkuntzen Erabileraren kale neurketak. Zortzitan egin da dagoeneko eta Soziolinguistika Klusterra azken 5 edizioetako ikerketaz arduratu da.

Testua: Nerea Cubillo Urkizu **Irudiak:** Euskara aurrera, Soziolinguistika Klusterra

Emaitzen txostena ekaina hasieran aurkeztu zuten arren, hilaren 22an Bizkaia Aretoan antolatutako Euskal Soziolinguistika Jardunaldien XIV. edizioan egin zuten 2021eko Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketaren emaitzen azterketa partekatua, hainbat ikertzaile, profesional, aktibista eta erakunde ezberdinetako arduradunekin. Kale-neurketarako metodologia Siadeco Ikerketa taldeak sortu zuen eta Euskal Kulturaren Batzordeak Euskal Herriko neurketa abiatu zuen 1989. urtean. Ordutik, badira nabarmen aldatu diren datuak euskararen erabilerari dagokionean, eta horien inguruko azterketa txiki bat egitea da erreportaje honen helburuetako bat, baita datu guzti horiek Deustualdeko errealitatera ekartzen saiatzea.

Ikerketa guztietan oinarri metodologiko berdintsua erabili da, hala eta guztiz ere, bost urterik behin egiten diren neurketetan hobekuntza batzuk ematen dira, "datuen sendotasuna eta zorroztasuna handitzeko". Oraingoan, laginketa eredua hobetzeaz gain, mugikor bidezko datubilketa egin da herri guztietan. Datuak 145 udalerritako kaleetan entzundako elkarrizketetan oinarrituta daude, eta inoiz baino ordu gehiago behatu dira 2021eko edizioan ikerketaren arduradunen arabera. Izan ere, 2021eko emaitzetan 215.396 elkarrizketa 603.497 solaskide hartu dira kontuan. Datu zehatzagoetan sartu baino lehen, Soziolinguistika Klusterrak argitaratutako 2021eko kale neurketa hoberen laburtzen duen izenburua honako hau da: "azken bost urteotan,

hau da, kale neurketa egin zen azken alditik, ez da gorabeherarik izan euskararen kale-erabilera orokorrean". Olatz Altuna Klusterreko zuzendariak azaldu bezala, lurraldeetako datuei dagokionez, "euskara gehien entzuten da Gipuzkoan (%31), ostean Bizkaia dago %9ko erabilerarekin eta azkenekoz Araba, Nafarroa Garaia eta Ipar Euskal Herria daude, %5-6 inguruko erabilerarekin".

Lurralde horietako hiriburuetako datuak apur bat adierazgarriagoak dira, izan ere, nahiz eta Araba lurraldeko euskararen kale erabilera hirugarren postuan kokatu, Gipuzkoa eta Bizkaiaren atzetik

EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA, HIRIBURUETAN. Euskal Herria, 1989-2021



Iturria: Soziolinguistika Klusterra

1. Mapa. EUSKARAREN KALE ERABILERA, LURRALDEKA. EUSKAL HERRIA, 2021 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

hurrenez hurren, hiriburuen hurrenkeran Gasteiz bigarren postuan aurkitzen da Bilboren aurretik. Donostiako euskararen kale-erabilera berriz, %15,3koa da eta lehen postuan ageri da.

Harremanak eta inertziak

Haurrak eta nagusiak batera dauden elkarrizketetan euskara nabarmenagoa da haurrak eta nagusiak banatuta daudenean baino. Deustuko Done Petri plazako egoeraren isla ere bada emandako datua, izan ere, umeak eskolatik irten eta parkera jolastera doazenean entzuten da euskara gehien plazan, baina ez ordea zabuetan jolasten dauden umeen elkarrizketetan, edota bankuan umeei begira dagoen gurasoen kuadrillan, baizik eta umeak gurasoengana edozer eskatzera hurbiltzen direnean.(Aipatutako datua aste barruko bi arratsaldetako egoerari erreparatzen dio).

Bestalde, gazteekin egin dituzten azken azterketetan nabarmen ikusten da taldearen eragina norberaren identitatea eta hizkuntza identitatea garatzerakoan.

Kalearen eta espazio publikoaren eragina

"Zenbat eta gazteago orduan eta gehiago gailentzen zaio emakumezkoen euskararen kale-erabilera gizonezkoari, edo beste era batera esanda, emakumezkoek euskara gehiago erabiltzen dute gizonezkoek baino, adinekoetan izan ezik". Gogoratu behar dugu datu hau kale elkarrizketetan oinarrituta dagoela, eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea den Koldo Telleriak eman du emaitza horren inguruko hipotesi bat: "ez da harritzekoa emakumeen artean euskara gehiago entzutea, sinpleki emakume gehiago daudelako kalean gizonak baino. Genero rol zaintzaileetan emakumezkoak gailentzen direla ukaezina da eta gizonek ez bezala, lanerako bidean edo lanetik bueltan, beste hainbat gauza egiten dituzte emakumeek, erosketak adibidez".

Gainera, kalean, batez ere auzo eta herri txikietan, saltokien homogeneizazioa gero eta nabarmenagoa dela adierazi dute Euskal Soziolinguistika jardunaldian, eta horrek ere "hizkuntzaren erabileran zuzenean eragiten du". Auzoetako saltoki txikiak, arrandegia, okindegia, haragia besteak beste, supermerkatu handi eta bakar batean bateratzeko joera handitu da azken urteotan. Deustun ere, egoera antzekoa da: gero eta okindegi, arrandegi eta haragi gutxiago dauden bitartean, urte amaieran izen ezaguneko supermerkatu handi bat zabalduko dute. Halako espazio pribatuek eta kasu honetan, Deustutik hurbil dauden merkataritza gune handiek gure hizkuntza ohiturak aldatzen dituzte etengabe, Oihana Santolaria Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslearen eta Irati Otamendiren arabera. Gainera, auzoetako lokalen husteak "kaleko bizitza eta kaleko harremanen gutxitzea dakarrela" gehitu dute, azken hau kaleko hizkuntzen erabileran zuzenean ere eragiten duen bitartean.

Turismoa ere bada kaleko hizkuntza ohituretan eragina duen beste faktoreetako bat eta Bilboko Alde Zaharreko errealitateak, egoki erantzuten dio bi hizlariek aipatutako egoerari. Horiek horrela, gaur egun auzoan erabilgarri dauden oheen %25a turismoari bideratuta baitago. Hala, Bilbon euskara, gaztelania edota frantsesa ez diren beste hizkuntzen erabilera %4-5 ingurukoa baldin bada, baliteke ehuneko horren zati bat behintzat turismoaren eraginez ematea: "kalea erabiltzeko moduari dagokionean, alde handia egongo da egunero kalean dabilenaren edo bisitan datorrenaren artean" gehitu du Otamendik hitzaldian. Finean "hirigintza ereduak azken 30 urteetan izan dituen aldaketek kaleko hizkuntza erabilerarekin lotura ere badutela" adierazi nahi izan dute.

Nola egin aurrera?

Jardunaldian behin eta berriro errepikatu den ideietako bat da ikerketaren emaitzek non eta zertan eragin ezagutzeko balio dutela, baina honen ostean "gure esku dagoela testuingurua ondo ulertzea eta ikustea zelan egin aurrera". Baina nola eta nondik hasi? Bada hauek dira gehien aipatu diren gakoak: "hezkuntzan haur eta gazteen euskararen ezagutza-maila egokia bermatzea, herritarren sentsibilizazioa eta erabilera-ohituren finkapena, helduen euskalduntzea, esparru sozioekonomikoa, eremu digitala eta hizkuntzaren teknologiak, eremu ez formalean euskararen eskaintza (ikus-entzunezkoak, kirola, aisia…) bermatu eta biderkatzea, Euskal Herrira heldutako migratzaileen inklusioa eta aniztasunaren lanketa, euskal kultura sistema (sorkuntza nahiz kontsumoa) sendotzea, eta hizkuntza-eskubideen bermea".

KULTURARTEKOTASUNAREN ASTEA CEIP DEUSTU HLHI-N

Urteen poderioz, Bilbo hiri kosmopolita bihurtu da, gure hiritik kanpoko jendea erakartzen duena, eta horrek kolore berezia eta polita eman dio; hainbat kultura batzen dira gure hirian, eta eskola horren isla da. Hori dela eta, CEIP DEUSTO HLHIn, maiatzaren 23tik 27ra kulturartekotasunaren astea ospatu genuen.

Testua eta argazkiak: Deustuko eskola

Azken bi ikasturteetan ospatu gabe egon ondoren, pandemiak utzi ez digulako, inoiz baino gogo gehiagorekin ekin diogu ospakizun honi.

Goraipatu eta protagonismoa eman nahi izan diegu eskolan dauzkagun kultura ezberdinei. Hain aberasgarria den astean zehar hainbat ekintza eraman ditugu aurrera: ipuinak, horma-irudiak, abestiak, leloak… ostirala egun nagusia izanda. Izan ere, musikarekin hasi eta arratsaldeko 18:00ak arte luzatu genuen alaitasunez eta algaraz betetako eguna. Lehen orduan, astean zehar egindako kartelak eta horma-irudiak, eskolan dauzkagun hizkuntza ezberdinetan idatzita, patioan eskegi genituen, ikas komunitate osoak ikusi ahal izateko. Jolasteko ordua heldu zen gero, eta munduko jolasak antolatu genituen: Brasilgo Joao palmada, Txinako Dragoiak, Marokoko Arsherez, besteak beste. Primeran pasatu



genuen. Deskantsua hartzeko eta lasaitzeko tartea ere heldu zitzaigun, eta horretarako eskolako abesbatzak ekitaldi bat eskaini zigun. Jatorri ezberdineko abestiak entzuteko eta gozatzeko aukera paregabea izan zen. Eta oraindik arratsaldeko festa geratzen zen. Familia guztiak gonbidatuta, denok elkarrekin dantza egin genuen. Baina falta zen gure ustez, asteko ekintzarik politena. Familiek haien herrialdeko plater tipikoak ekarri zituzten, eta afari merienda antolatu genuen, munduko zapore guztiekin; 60 plater inguru batu genituen. Bapo bukatu genuen!, eta gure artean (irakasleria, familiak, ikasleak…) hitz egiteko eta tarte polita pasatzeko aukera izan genuen.

Jai honek balio izan digu gu lotzeko, elkarrengandik ikasteko, ulertzeko eta gure ingurukoen kulturak zein aberasgarriak diren estimatzeko.

Gure eskolan badakigu kultur aniztasunaren errespetua eta balorazioa funtsezkoa eta beharrezkoa dela elkarbizitza positiboa sustatzeko, gure ikasleak osotasunean hezteko, aniztasunean oinarritutako hezkuntza gure ardatzetariko bat da.

Datorren ikasturtean berriro ere, ilusioz eta gogoz ekingo diogu guretzat hain garrantzitsua den ospakizun honi, kultura guztiak ongi etorriak dira eskolara.

BILBO IRUDIKATZEKO BESTE

Ekainean Bilboko Udalak Deustuko udal armarria ezarri du Done Peri plazan, elizaren aurrean. Honek aitzakia ematen digu Bilboko armarriaz berba egiteko. Jakina denez, armarri zaharra da, gutxienez XVI. mendetik hona San Antoneko eliza eta zubia erakutsi ditu eta. Gaur orrialde hauetara beste bat ekarriko dugu. Ez zuen biderik egin, baina leku bat merezi du.

Testua: Hektor Ortega

Bilborako armarri berriaren proposamena (1931).

1931ko martxoko Bilboko udal kargudunak ez ziren herritarrek nahi zituztenak, Damaso Berenguer jeneralaren diktadurak Madriletik izendatutakoak baino. Alkate Adolfo Gonzalez de Kareaga (1897-1937) zegoen, 1930eko otsailean hartu baitzuen kargua eta utzi, Espainiako II. Errepublika ekarri zuten 1931ko apirilaren 12ko udal hauteskundeetan utzi zuen. Bozken bidez ahalegindu zenean, porrot egin zuen: 1933an diputatugai aurkeztu zen Bilbon baina ez zuen aktarik lortu. 1937ko urtarrilaren 4an hil zuten Begoñan, Angeles Custodioseko sarraskian, preso zegoela.

Bada, alkate karguan hilabete falta zitzaionean, Kareagak, lau zinegotziren babesaz, mozioa aurkeztu zuen Bilboko Udalaren armarria aldatzeko. Artean indarrean zegoena eta gaur egungoa berdinak ziren, xehetasunak gorabehera. Baina alkate monarkikoak aldaketa nabarmena proposatu zuen: armarrian lekua egitea Bilbok aurreko urteetan bereganatutako elizateei: Abando (1890), Deustua (1925) eta Begoña (1925).

Laurak bat

Martxoaren 12ko prentsan irakurri dugu Bilboko Udaleko Batzorde Iraunkorrak onartu egin zuela alkatearen eta bere taldearen proposamena. Argudio morala astindu zuten: "Gure iritziz arlo moraleko erabaki bat falta da" Bilboren handitzearen ondorioz desagertu ziren herriekiko begirunean. Izan ere, elizate zaharroi izaera eta izatea bera aldarazi zieten. Bestalde, argudiatu zuten, Bilbok berak ere bere burua aldatuta ikusi zuen, albo-herriok bereganatu ahala.

ARMARRI BAT (1931)

Eta zelan kitatu zor hura? Bilboko armarrian Begoña, Abando eta Deustua ere sartuta. Horrela erakutsi nahi zuten 1931ko Bilbo ez zela lehengo Bilbo, hiribilduaren eta elizateen batuketaren ondorioz sortutako zerbait berria baino, lau entitateen ekarpenez elikatutako Bilbo berria alegia.

Ez zen bat-bateko kontua izan. Mozioan bertan aipatu zuten heraldika adituekin kontsultatu zutela proposamena eta bereziki hartu zutela kontuan Juan Carlos Guerraren iritzia. Sasoi hartan Guerra genealogia arloan aditurik handienetakoa zen Euskal Herrian, Euskaltzaindiko kidea izateaz gain.

Bada, Guerrak proposatutako aukera bietako bat hautatu zuten: "Bilboko armarri zaharrari ematen zaio lehentasunezko lekua, dagokion bezala; Begoñako elizate zaharreko armarria ere nabarmendu da, Bilboko uria haren lurretan sortu zutelako eta herri horretan dagoelako Bizkaiak gehien gurtzen duen lekua, Begoñako Ama Birjinaren eliza alegia". Eta, jakina, tokia egin zieten hala Abandori nola Deustuari. Beraz, armarri berriak goialdean Bilboko irudi zaharra zeraman (San Anton eliza eta zubia), erdian Begoñako ikurra (loreontzia), eta behealdea erdi bana Abandoko zuhaitz eta bihotzentzat eta Deustuko zuhaitz, giltza eta otsoentzat.

Onartua eta ahaztua

Alkatearen mozioa udal batza osora eraman behar zuten. Baina garai nahasiak ziren haiek eta martxoaren 12az geroztik osoko bilkura bi egin zituen Bilboko Udalak (martxoaren 15ean eta 21ean) baina batzar horietako aktetan ez da ageri. Onartuta ere, Bizkaiko Aldundiari bidali behar zion Udalak, bere onespena eman zezan. Dirudienez, armarri berriaren proposamena ez zen inoiz Bilboko Udaletxetik atera. Apirilaren 12ko hauteskundeen ostean, Gonzalez de Kareaga alkatearen agintaldia amaitu ez ezik, Errepublika aldarrikatu zuten hainbat udalek (euskal errepublika udal askok). Agenda politiko berriak, antza denez, Kareagaren taldearen asmo haiek eraman zituen, guk dakigula armarri hura ez baitzen inoiz erabili modu ofizialean.

Oharra: testu honen lehenengo bertsioa Berton aldizkariko 203. zenbakian (2016ko azaroa) argitaratu zen.

Kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

DONE PETRI PLAZAKO LANAK AMAITU DITUZTE

Ia egunero bertatik pasatzen garelako badakigu Deustuko Done Petri plaza berrizteko lanak amaitu dituztela. Era berean, batzuek soilik hortik igarotzeko erabiltzen duten bitartean, badira goiz pasa edo arratsalde pasa joaten diren auzokideak eta oraingo honetan haiei hitza eskatzea erabaki dugu.

Testua eta argazkiak: PREST!

Agirre Lehendakariaren etorbideak erdibitzen duen plazak hainbat berrikuntza eta hainbat "galera" ditu auzokideen arabera. Arantzak adibidez dio eguzkitik babesteko itzala sortzen duten zuhaixkak falta direla, "ia egunero" etortzen dela plazara irakurtzera eta "azken egunetako eguzki eta beroarekin" itzal bat "asko eskertuko lukeela". Kiosko zaharra zegoen aldean aurkitu dugu banku batean eserita, liburua eskuan. Itzala ez ezik, plazaren alde honetan ere ura edateko edo freskatzeko iturria ere faltan sumatzen du "plaza oso handia da iturri bakarra egoteko".

Belenekin berriz, plazaren beste aldean egin dugu topo. Banku batean eserita dago baina minutu batzuk lehenago kirola egiteko tresnetan ibili dela azaldu digu. Hori da gehien gustatzen zaion berrikuntza. Hala ere, frontoiaren aldean aterpe azpian dauden zabuak ez zaizkio asko gustatzen, honen ustez "ume txikientzako ez direlako batere seguruak".

Beste hainbat iritzi jaso ditugu azken hilabete honetan. Orokorrean askoren ustez plazaren itxura asko hobetu da material eta irudi berriztuarekin eta hauen hitzetan "Hizkuntza Eskolako aldean lehen baino gauza gehiago antolatu ahal dira, espazio zabal asko geratu delako". Halaber, frontoiaren aldeko eskailerak kendu izanaren ondorioz, espazioa irisgarriagoa bihurtu da eta besteak beste, auzoko nagusiek eta gurpildun aulkian doazenek "asko eskertzen dute" oztoporik ez egotea.

Deustuko armarria auzoan berriz ere

Done Petri plaza berritzeko lanekin batera, orain arte Euskal Museoan ikusgai egon den Deustuko Elizateko udaletxe zaharreko armarria ezarri dute Done Petri elizaren aurrean, anexioa gertatu zenetik ia mende bat betetzear dagoenean. Armarri honen inguruko informazio gehiago jasotzeko asmoz, Txema Luzuriagaren liburuetara jo dugu, informazio iturri gisa, eta hauetan irakur daitekeenaren arabera, Deustuko elizateko lehenengo udaletxea 1755. urtean eraiki zuten Done Petri plazan eta 132 urte geroago eraitsi zuten, 1887. urtean hain zuzen. Urte bete beranduago eraiki zuten bigarrena, lehena zegoen toki berean.

artikulua
Arangoitiko TAOa

MARRA BERDEEZ HARAGO

Aspaldi da TAOaren auziak urruneko kontu izateari utzi ziola gurean. Ikasturte hasieran iragarritako neurria maiatzaren 2an egikaritu zuen Bilboko Udalak, eta ordutik Ibarrekolandan, San Inazion eta Elorrietan aparkatzeko ordaindu beharra dago. Eragina, ordea, ez da hiru auzo horietara mugatu, eta orain aparkatzeko zailtasunak Arangoitira mugitu dira.

Testua: Jone Gartzia Gerra **Argazkiak:** Bihotzaran Arangoitiko Auzo Elkartea

Udalak 2021eko urtarrilean kaleratutako ikerketa batek argitara eman zuen bai Ibarrekolandan, San Inazion, Elorrietan eta Arangoitin aparkatuta zeuden ia kotxeen erdia ez zeudela auzo horietan erregistratuta. TAO zerbitzuaren ezarpenak, Bilboko Udalaren hitzetan, arazo horri aterabidea emateko helburua du.

Kontua da, auzootan aparkatzeagatik ordaindu behar izanak ez dituela ibilgailuak desagerrarazten, ez eta autoaren erabilera halabeharrez murrizten ere. Izan ere, ez da bestelako neurririk hartu, garraio publikoa sustatzea edo disuasio-aparkalekuak eraikitzea kasu. Hori da, hain zuzen, barrutiko EH Bilduko ordezkariek Udalari leporatzen diotena. "Udala dirua biltzeko neurriekin baino ez da geratu", salatu du Alonso kontseilariak. Neurria indarrean dagoenetik, nabarmen arindu dira hiru auzootan aparkalekua aurkitzeko zailtasunak; eta izugarri zaildu Arangoitin. Aipatu beharra dago, bertako etxe gehienek ez dutela garajerik, nahiz eta aparkaleku publikoa badagoen auzoan. Berehala piztutako arazoarekin kezkatuta, Arangoitiko Bihotzaran auzo elkarteak prozesu parte-hartzailea abiatu zuen aparkalekuak erregulatzeko neurrien inguruan. Maiatzaren 26an eztabaida bat antolatu zuten auzoan, eta botazio edo erreferenduma ekainaren 4an. Adinez nagusiak ziren 1.258 arangoititarrek hartu zuten parte, eta horietatik 1.179k (%93,48) TAOaren alde bozkatu zuten. 79 pertsonak bozkatu zuten kontra (%6,27) eta hiruk boto zuria eman zuten. Orain, barrutiko komisio teknikora eramango dituzte emaitzak, baina irailera arte Udalak ez du eskaera aztertuko. Hala ere, mugikortasun sailean badute honen berri eta ikerketa bat egiten ari dira Arangoitin aparkatutako autoen jatorria ezagutzeko. Bitartean ezer gehiago egin ezin dutela adierazi du Bihotzaran elkarteko Angel Prietok, eta bestelako neurririk ezarri ezean Arangoitin aparkatzeak oso zaila izaten jarraituko duela uste du.

Kontrako iritziak

San Inazioko Gazte Asanbladak zehaztu du neurria langile klaseko auzokideentzako, saltoki txikientzako eta kanpoko langileentzako gastu gehigarria dela. Gainera, neurria "inposatua" dela eta "eremu publikoaren merkantilizazioa" ekarriko duela salatu dute taldekideek, ingurumenaren babesaren aitzakiapean baina "alternatibarik eskaini gabe". TAO zerbitzua ematen duen Gerte enpresako langileen baldintza okerrak eta neurriak ekarriko duen poliziaren presentziaren areagotzea ere azpimarratu dituzte.

berbetan

EVA FERREIRArekin

EHUko errektorea

“Garrantzitsuena da jendeari ulertaraztea

2021eko urtarrilean izendatu zuten Eva Ferreira (Barakaldo, 1963) Euskal Herriko Unibertsitateko errektore. Ibarrekolandan bizi da eta horregatik eta EHUko bigarren emakume errektorea izateagatik elkarrizketatu dugu ekaineko PREST! aldizkarian. Errektore gisa dituen ideia eta kezken inguruan aritu gara batez ere berarekin.

Testua: Nerea Cubillo Urkizu
Argazkiak: Ecuador Etxea

unibertsitate publiko batek zer eskaintzen duen”

Pandemia amaitutzat ematen den honetan, nolako eragina izan du zure ustez Koronabirusak Euskal Herriko Unibertsitateko gestioan? Langile asko telelanean ari dira oraindik.
Hasieran oso zaila izan zen hainbeste lan ezberdin kudeatzea. Hala eta guztiz ere, asko harritzen nau unibertsitate-komunitateak ikasketak eta noski, kudeaketa bera ere eguneratzeko izan duen gaitasuna. Era berean, esan behar dut online formakuntzara egokitu ginen bezala ohitu garela ikasturte honetan presentzialtasunera. Euskal Herriko Unibertsitatea unibertsitate presentziala da.

Hala eta guztiz ere, pandemian sortutako joera batzuk oraindik mantentzen dira. Administrazio kontuetarako aurretiazko hitzordua eskatu behar izatea adibidez. Datorren ikasturtean horrela mantenduko da?
Pandemia garaian hartutako neurri guztiak aldatzen goaz pixkanaka-pixkanaka. Badira hala ere modu online batean egin daitezken kontuak eta horiek mantendu behar direla uste dut. Idazkaritzak zabalik daude presentzialki zerbitzuak emateko eta berriz azpimarratuko nuke formakuntzari dagokionean gure unibertsitatea presentziala dela.

Euskararen erabilerari dagokionez, azken egun hauetan berriz entzun ditugu medikuntzako ikasleen salaketak gradua osorik euskaraz ikasi ezin izateagatik. Nola ikusten duzu?
Azken urte hauetan, Galdakaoko ospitalea txertatu dugu gure sisteman euskara bultzatzeko helburuarekin. Ondorioz, ikasle askok praktikak euskaraz egin ditzakete hitzarmen berri honi esker… Badira salbuespenak, adibidez mediku espezialista euskaldun batek baja hartzen duenean, euskaraz hitz egiten ez dakien beste mediku espezialista batek ordezkatzen duenean. Era berean, arazo hau nolabait belaunaldi berrietako medikuekin konpondu daitekeela aurreikusten dut, gero eta mediku euskaldun gehiago baitaude. Gainera, badakit hauen artean ere irakasleak egongo direla. Dena dela, medikuntzako gradua gaztelaniaz eta euskaraz banatzen da euskarazko ikasketak babesteko.

Ikertzaile batzuek “diskriminazio linguistikoa” salatu dute C1 maila eskatzen zaielako. Euskaraz jardun behar den lanpostu guztietan maila bera eskatzen da?
Ez. Administrazioko eta zerbitzu profesionaletako langileei adibidez maila baxuagoa eskatzen zaie. Hurrengo maila batean ikertzaileak eta irakasleak kokatzen dira. Noski, euskaraz

“Medikuntzako gradua gaztelaniaz eta euskaraz banatzen da euskarazko ikasketak babesteko”

berbetan

EVA FERREIRArekin

▷ ▷ SAKONEAN

“EHUren historian errektore emakume bati lekukoa hartzen dion lehen emakumea naiz”

Urtebete egin duzu dagoeneko Euskal Herriko Unibertsitateko errektore gisa. Nola joan da azken urte hau?

Bikain. Aurreko ikasturtean oso emaitza onak lortu genituen eta harrotasunez esaten dut unibertsitateko komunitate guztia arazorik gabe egokitu dela azken urteetako egoera berrietara.

EHUren 40 urteko ibilbidean bigarren errektore emakumea zara. Nola hartzen da hori?

Gustatuko litzaidake hori albiste bat ez izatea, baina ezin da ukatu nahigabe ere albistea bilakatzen dela… Nekane Balluerka izan zen Euskal Herriko Unibertsitateko lehen emakumezko errektorea baina ni naiz emakume bati lekukoa hartzen dion lehen errektorea (barreak). Nekanerekin beti txantxa bera egiten dut.

irakasteko euskara maila eskatzen dugu, baina momentu honetan esango nuke ikertzaileei ez zaiela profil linguistiko zehatzik eskatzen.

Deustualdera etorrita, unibertsitate pribatuetako eskaintza hazkunde betean dago. Zorrotzaurre planaren baitan, ikasketa zentro pribatu asko zabaldu dituzte azkenaldian Deustuko Erriberan. Gasteizen berriz, EUNEIZ proiektua aurrera doa. Nolako eragina izan dezake horrek EHUko ekosisteman?

Garrantzitsuena da jendeari ulertaraztea unibertsitate publiko batek zer eskaintzen duen. Eta noski, eskaintzen dugun horrek duen kalitatea ere baloratzen jakitea garrantzitsua da. Jende guztiarentzako eskuragarri dauden datuek ere hori islatzen dute, eta “rankingek” ere postu onean kokatzen gaituzte. Beraz, nire aholkua litzateke eskaintza guztiak aurrean jarri eta alderatu eta ostean erabaki bat hartzea.

Zertan ezberdintzen dira orduan zure ustez, unibertsitate publikoa eta pribatua?

Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea naizen aldetik, bata eta bestea alderatu beharrean nahiago dut azaldu unibertsitate publiko bat zer den. Eta berriz, unibertsitate pribatu baten definizioa unibertsitate pribatu bateko errektore batek egin dezala… . Gure unibertsitateak oso ezaugarri bereziak ditu nire ustez. Alde batetik publikoa da eta ondorioz, edozeinek dauka sarbiderako eskubidea, gutxieneko ikasketa gaitasunak beteta, noski. Arazo ekonomiko zein fisikoak nire ustez ez dira oztopo EHUn gradua ikasi ahal izateko. Publikotasun horretaz gain, eskaintza oso zabala daukagu eta horrek jeneralista bilakatzen du. Gizarte zientziak, arte ederrak, osasun zientziak… denetarako eskaintza dago eta arlo guztietako ikasketak eskaintzeaz gain, badira ere oso eskaintza espezifikoak.

Publikotasun hori bermatzeko, zer du zure ustez Euskal Herriko Unibertsitateak hobetzeko?

Askotan esaten dut, ez bakarrik unibertsitatean baizik eta orokorrean, beti daudela gauzak hobetzeko. Gaur egun, gure graduko formakuntzak oso egonkorrak izan behar dira gizarteari nolabait esateko gure eskaintza ere egonkorra dela, eta guraso zein ikasleen artean nahasmendurik ez sortzeko komeni da urte batzuk lehenago denek jakitea gure graduek zer eskaintza duten, eta agian horregatik ematen dira hain aldaketa gutxi. Eskaintza urtez urte aldatu ez arren, badira berrikusten ditugun kontuak. Graduondoko formakuntzek oraindik badute zer hobetu nire ustez, urtero gizartearen, enpresen eta erakundeen eskaerak aldatuz doaz, eta guk eskaera horiei aurre egin beharko geniekeela uste dut.

Genero indarkeriari dagokionean, badago horrelako erasoak saihesteko tresnarik?

Genero indarkeriari aurre egiteko protokolo bat dago martxan EHUn. Protokolo honen helburu nagusia da erasotuari laguntza eskaini eta babesa bermatzea. Salaketa jartzeko laguntza ere eskaintzen dio protokoloak. Oro har pausu ezberdinak ditu, baina eraso baten berri dugunean oso diskretuki egiten dugu lan. Sinplea baina aldi berean eraginkorra dela deritzot.

Zientzia arlora salto eginda, ohikoa da ikerlari askok estatutik kanpora joatea ikerkuntzan jarduteko. Nola bermatu daiteke ikerlariak bertan geratzea beste herrialde batzuetara joan beharrean?

Guretzako garrantzitsuena truke bat mantentzea da. Oso ondo iruditzen zait ikerlari gazteak beste herrialde batzuetara joatea. Ni Estatu Batuetara joan nintzen eta denbora batera itzuli nintzen. Posible da joatea eta denbora batera bueltan egotea, posiblea da ere bai bertan geratzea, eta posiblea da ere bai kanpoko ikertzaileak gurera etortzea. Garrantzitsuena da fluxu bat egotea. Hau esanda, oraindik fluxu hori positiboa izateko lanean gabiltza, hau da, guk ere ikerlari gehiago jasotzea.

Zer egin daiteke fluxu hori positibo bilakatzeko?

Ikerlariak Euskal Herrira etortzea nahi badugu, eskaintza oso erakargarria izan behar da. Baina ez bakarrik unibertsitatean, enpresetan, erakundetan eta beste hainbat zentroetako eskaintza hobetu beharko litzateke.

Zientziaren lege berriak ikerketako, garapeneko eta berrikuntzako langileei baliabide, eskubide eta egonkortasun gehiago emango dizkie. EHUk egin du dagoeneko horren aurreikuspena?

Lege berri honek malgutasun handia emango digu kontratuak egiteko adibidez. Ikerketaren arloa orokorrean hobetzeko bi gauza hartu behar dira kontuan, kontratuak hobetzea alde batetik, eta bestetik azpiegitura berriak lortzea, administrazio publikoa garen aldetik oso estuak direla uste dudalako.

“Edozeinek dauka Euskal Herriko Unibertsitatean sartzeko eskubidea”

KIROLAK

Iñaki Arechabaleta deustuarra Athletic-en presidentetzarako hautagai

Hauteskunde-lasterketa azken postuan hasi badu ere, konfiantza osoz aurkeztu du bere taldea Iñaki Arechabaletak Azkuna Zentroan. 17 kidez osatutako taldeak hiru presidenteorde izango ditu: Iñaki Goirizelaia EHU-ko errektore ohia, Mario Fernández Abokatua eta Marta Areizaga, Firstlehen-en zuzendaria. Zuzendaritza batzordeak Athletic "loturarik eta lakrarik gabe" hartuko lukeela argi utzi du. Bestalde, kirol proiektuan ez ezik, beste eremu batzuetan ere indarra jartzeko prest agertu da Deustuarra. Izan ere, "Datorren Athletic. El Athletic que nos debemos", lelopean aldaketa bat eman nahi dio taldearen irudiari eta horregatik Athletic-eri buruzko dokumental bat egin nahi duela azaldu du. Amazonekin dauka itxita akordioa taldearen baloreei buruz hitz egiteko.

MATXISMOA

Beste eraso matxista bat salatu dute San Inazion

Bikotekidea jotzeagatik gizon bat atxilotu zuen Ertzaintzak joan den ekainaren 17an. San Inazioko kale batean gertatu zen erasoa, hainbat hedabidek baieztatu dutenez, "gizonak emakumea aurpegian jipoitu eta lepotik heldu zion bultza egiten zion bitartean, berarekin etxera joan zedin". Inguruan zeuden hainbat auzokidek oihuen bitartez erasoa gelditzen saiatu ziren, polizia heldu eta erasotzailea atxilotu zuten arte. Bilboko ITAIA taldeak erasoa salatu du.

HIRIGINTZA

Deustuko zubiaren gaineko ikuskapen "sakon" bat egingo dute

Denok ezagutzen ditugu Deustuko zubian gertatzen diren mugimendu edota bibrazioak, batez ere zubiaren erdialdean dagoen zirrikitura heltzen garenean. Hala eta guztiz ere, hainbat auzokidek Udalari ohartarazi diotenaren arabera, azkenaldian ohi baino gehiago mugitzen da zubia autobusak edota ibilgailu pisutsuak bertatik igarotzen direnean. Udal Gobernuak orain arte mugimendu "nabarmen" horiek ohikotzat hartu dituen arren, mugimendu horiek materialen higadura batek eragiten dituenaren susmoa duela adierazi du Bilboko Udalak eta duela hamarkada bat zaharberritzea gainbegiratzeaz arduratu zen ingeniaritzari eskatu dio "ikuskapen sakon eta zorrotz" bat egiteko "honek ondo baino hobeto ezagutzen baitu zubiaren funtzionamendua".



JAI HERRIKOIAK

Arangoitiko eta Deustuko Erriberako jaiak ospatuko dituzte hilabete amaieran

Bata bestearen atzetik heldu dira Deustualdeko auzoetako jaiak. Ibarrekolandako jaien ostean, oraingoan Arangoiti eta Deustuibarra auzoen txanda da. Ekainaren 24an emango diete hasiera jaiei Arangoitin, eta uztailaren 3ra arte luzatuko dira. 10 egunez barrakak, txosna, kontzertuak, bazkariak, jolasak eta dantzak izango dira auzoko kaleak girotzeko asmoz, eta bertako jai batzordearen arabera "aurten inoiz baino gogo handiagoa dute giro hori auzoko txoko ezberdinetan sentitzeko". Deustuko Erriberak hartuko dio lekukoa Arangoitiri, bertako jaiak ekainaren 30ean hasiko baitira, astebete beranduago hain zuzen. Ekainaren 30ean, osteguna, egingo dute txupinazoa Yolanda Gonzalez plazatxoan eta hortik aurrera, dagoeneko ohitura bihurtu diren ekintzek hartuko dituzte asteburuko ordu gehienak: umeentzako ur jolasak, paella lehiaketa eta sardinada besteak beste.

Urtea: 1982

Txema Luzuriaga

Bilbao Goyoaga enpresa

Zaila egiten zait gaur egun Deustun ia 200 urte daramatzan enpresa honen aipamen labur bat egitea. Gomendatzen dut Jesus Bilbao-Goyoagaren El genio de la ría liburua irakurtzea. Soilik aipatuko dut lanak 1.833an Juan Bilbao-Goyoagarekin hasi zirela, itsasontzien soka- eta kandela-fabrika bat eraiki zuenean. Oihalen eta oihal iragazgaitzen inguruan asko zekitenez, olanak fabrikatzen hasi ziren. Eta oso ondo joan zitzaien joan den mendeko 90. hamarkadaren amaiera arte. Deustuko Erribera honetan egindako lehen itsas eta ontzi jardueren oinordekoa izan zen, baina 2005ean eraitsi zuten. Argazki hau 1982koa da eta Alejandro Santamariak utzi zidan.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

AZALA
TATTOO STUDIO
Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagrama: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfnoa: 94 475 11 24

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
656 410 475
Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Toki Berri
Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintorería La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

artez euskara zerbitzua
Probatu herrizki.eus
ANDROID APP Google play
App Store

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek euskaltegia
Matrikula zaitez!

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Bakarrik bidaiatzea gustuko duzu?

Laura
Algorta
Bai noski! Lehenego pausua ematea zaila bada ere, bakarrik bidaiatzeak zeure buruarekin egotera behartzen zaitu une batez.

Xabier
Deustu

Ez dut inoiz bakarrik bidaiatzeko aukerarik izan baina ahalko banu egingo nuke. Neure buruarekin egoteko ariketa polita dela deritzot.

Nahia
Deustu

Ballet ikastaro batzuk egitera joan naizenean bakarrik bidaiatu dut. Nahiz eta ez dudan inoiz egin, gustatuko litzaidake bakarrik joatea oporretan edo beste herrialde bat ezagutzera.

Gonzalo
Madril

Asko gustuko dut bakarrik bidaiatzea. Aurten Kopenhagen eta Londresen izan naiz.

Diego
Madril

Bai. Bakarrik bidaiatu dudanean oso aberasgarria izan da.

Laura
Bartzelona

Asko gustatuko litzaidake baina ez dut inoiz egin.

>> DEUSTUKO ERRIBERA

DEUSTUKO ERRIBERAKO EHUN URTEKO BIZIPENAK BILTZEN DITUEN LIBURU-DOKUMENTALA AURKEZTU DUTE

"Itzela izan da, mila esker!", "Oso hunkigarria", "Omenaldi ederra gure nagusientzat, daudenentzat eta joan direnentzat", "Zorionak, auzo guztia batu duzue eta gaur egun hori asko da!". 'Hamaika Begirada' liburu-dokumentalaren aurkezpenean egondako auzokide batzuen mezuak dira. Pabiloi 6an egindako ekitaldian bildutako berrehun lagunek harrera ezin hobea egin zioten Deustuko Erriberako eta Zorrotzaurreko ehun urteko historia eta bizipenak biltzen dituen proiektuari.

Testua: Nerea Olaziregi

Erriberako Pabiloi 6a jendez lepo bete zen ekainaren 15ean egindako Hamaika Begirada liburu-dokumentalaren aurkezpenean. Nagusienak lehenengo lerroetan eseri ziren, aretoan egiten zuen beroari aurre egiteko, ur botila eta kartoiz inprobisatutako abanikoak eskuetan zituztela. Beraiek dira proiektuaren protagonistak. Hogeita sei pertsona elkarrizketatu dituzte Yolanda Veiga , Iban Méndez eta Nerea Olaziregi, auzoko bizilagun eta kazetariek. 80 urtetik gorakoak gehienak. Euren bizipen eta oroitzapenen bidez, Erriberako ia mende bateko historia errepasatu dute: gerraosteko errepresio eta estutasunetatik hasi, oparotasun industrialaren garaira eta uholdeek markatutako ondorengo gainbeherara; galleteren gorabeheretatik, jaietako antolaketara; langilez betetako txalupatik, etxeetako ateak irekita zeuden garaietara. Aurkezpen ekitaldian egileek adierazi zuten bezala, "Hamaika Begirada ez da edozein liburu, liburu interaktiboa da". Izan ere, kapitulu bakoitzaren hasieran dagoen QR kodera joz, bideo bat ikus daiteke. Hamaika ataletan banatutako lana da eta atal bakoitzak bere testua eta bideoa du: Gerra eta gerraostea, Galleterak, Itsasadarra, Haurtzaroa, Tabernak, Dendak, Migrazioa, Uholdeak, Jaiak, Hiru 'erribera' eta Hamaika Begirada. Auzoetako toki esanguratsuetan ere QR plakak jarri dituzte bertatik pasatzen direnek gai bakoitzaren inguruko informazioa jaso ahal izateko.

Lau urteetako lana izan da, ahalegin, mimo eta maitasun handiz egindakoa. Liburua ikustea besterik ez dago horretaz jabetzeko. Alde batetik euskarazko bertsioa eta bestetik euskarazkoa. Diseinu zaindua. Protagonistak eta euren sinadurak erdigunean. Ongi aukeratutako eta ilustratutako argazkiak. Laura Freijo izan da diseinatzaile eta maketatzailea, Atxarte Salvador itzultzailea, Txema Luzuriagak, Ane Rotaetxek, Liber Irisarrik, Martín San Estebanek eta hainbat auzokidek dokumentazioa eta irudiak utzi dituzte eta Urko Olazabal izan da dokumentalaren arduradun. Bestaldetik, Erriberako auzo elkartea, Artiach galleta fabrika eta Vicinay Cadenasen laguntza ekonomikoa izan dute. Aurkezpenean egitasmo honen atzean egondako pertsonen lana goraipatu nahi izan zuten Yolanda, Iban eta Nereak. "Lan kolektiboa izan da eta talde polita osatu dugu. Oso eskertuta gaude jaso dugun laguntzagatik". Era berean, auzoaren etorkizunaz kezkatuta agertu ziren. "Ez dakigu zertan bilakatuko duten Erribera, baina susmatzen dugu. Egunez egun gure auzoaren eraldaketa ikusten ari gara eta ez du zerikusirik liburuaren protagonistek kontatu digutenarekin". Baina jakin badakite iraganaren memoria ezinbestekoa dela oraina eta etorkizuna eraikitzeko eta 'Hamaika Begirada' proiektuarekin ekarpen hori egin nahi izan dute. Erriberako tabernetan dago eskuragai.

TXAPEL JAIAK
EKAINAK 24 - UZTAILAK 3
24 DE JUNIO - 3 DE JULIO
2022

BILBAO KALLING
Esnatu! Ireki begiak! Guce sistemak leku guztietatik engainatzen gaitu eta guk ez dugu ezebez eguen
Blablablagaiera-
Ulertzen?
Eta hori... uuu
uuu Buena... ecesi da Gauza guk...
BLABLABLA
BLABLA
Ba! Beti nahiago izan ditut txakurrak
C.G.M

UDAKO SOLSTIZIOA OSPATU DUTE DEUSTUALDEAN

Deustuko, Erriberako eta San Inazioko jai batzordeek hainbat ekintza antolatu zituzten ekainaren 23an udako solstizioaren harira.

Testua eta argazkiak: San Inazioko Jai Batzordea, Txitxardin Erriberako Jai Batzordea eta Deustuko Jai Batzordea

Deustuko Erribera

Deustuko Erriberan adibidez egitarauari hasiera emateko asmoz, 17:30ean Iñaki Uriarte arkitektoak itsasontziz egindako ibilbidea gidatu zuen itsasadarretik. 19:30ean Granujas a todo ritmo taldeak girotuta, kalejira izan zen auzoko tabernetatik. Ostean, Eugenio Olabarrieta plazan, elizaren atzean hain zuzen, luntxa eta txokolatea eskaini zituzten eta azkenik 22:00etan ekin zioten sua pizteari.

San Inazio eta Ibarrekolanda

San Inazio-Ibarrekolandan ohiko lekuan egin zuten jaia, Barkuaren plaza izenez ezaguna den gunean. Euriak egitaraua apur bat moldaraztera behartu zituen antolatzaileak, baina arratsaldean zehar ez ziren falta izan batukada, musika, jatekoak eta edatekoak. Gainera, Txepetx Aisialdi taldeak egindako zozketaren sari banaketa egin zuen bertan.

Deustu

Deustun berriz, goizean auzoko aisialdi taldeetako begiraleek gidatuta, umeentzako tailerrak izan ziren Done Petri plazan. Eguerdiko geldialdi laburraren ostean, arratsaldeko 17:30ean abiatu zen Gora Bihotzak! ikuskizuna Eidaberen eskutik. Deskantsurako tarte askorik gabe, jarraian Bihotz Alai Dantza Taldeko umeek ikasturte bukaerako ekitaldia egin zuten eta ondoren, leku berean talde osoak erromeria dantzatu zuen. Brassas Txaranga eta panderojole eta albokariak auzoko kale eta tabernak girotzen ibili ziren gaueko 23:00etan jai batzordea osatzen duten eragile ezberdinetako kideek sua piztera hurbildu ziren arte. Aipatutakoez gain, suszko zezena, txokolatada eta txorizoa ere eskaini zizkieten bertaratutakoei.

PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

Parmigiana de melanzane

Carmenek eta Agostinok auzoan zabaldu berri duten italiar jatetxe berrira hurbildu gara oraingoan bertan duten eskaintza gehiago ezagutzeko asmoz. Lokalak hilabete eskas zabalik daraman arren, duela lau urte inguru abiatutako proiektua dela aitortu dute biek.

Prezioa: 12€

Berezitasuna: Glutenik eta pastarik gabekoa.

Kontu batzuk

Milanen jaiotakoak dira Carmen eta Agostino, txikitatik ezagutzen dute elkar eta asko pozten ditu proiektu honetan elkarlanean aritzeak. Jatetxea berak ere badu Italia zatitxo bat bere pareta eta zoruetan, eta zeresanik ez kartaren inguruan. Pizzaz gain Italian beste plater goxo eta zaporetsuak daudela erakutsi nahi izan dute. Horiek horrela, Casa Milano jatetxearen kartan pasta, entsaladak, haragia eta Italian ohikoak diren postreak ere aurki ditzakegu. Jatekoaz aparte, edariak ere badu bere berezitasuna, ardo asko Italiatik ekarritakoak direlako. Freskagarrien eta garagardoen kasuan, marka handiekin lanik ez egitearen hautua egin dute. Laranjazko, limoizko eta kola zaporezko freskagarriek ez dute azukre gehigarririk eta hirurak dira ekologikoak. Bestalde, garagardo guztiak artisauak dira.

CASA MILANO RISTORANTE
Heliodoro de la Torre kalea, 2
946 46 44 71

Astelehenetik igandera:
13:00-16:00 eta 20:00 23:00
Asteartetan itxita

Plateraren inguruan

Casa Milano jatetxeko karta osatzen duten platerak Italiatik ekarritako jakiez eginda daude batez ere. Zezina eta ahuntz gazta ordea, sukaldariaren jatorrizko herri batetik ekartzen dituzte, Leon ingurutik hain zuzen. Lerro hauetan aurkeztutako platera Italiako hegoaldeko errezeta tradizionala da.

OSAGAIAK

Alberjinia
Tomatea
Albaka
Parmiggiano
Mozzarela

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

ANTXON AGIRRE
Gaztea eta Kulturzalea

KANTU BAT GARA

- Zer, Teodora?
- Jende askok galdetu dit ea zergatik esaten duzun "Aupa, Maurizia" plazan jotzen ari zaren bitartean. Eta egia esan, neuk ere ez dakit zergatik egiten duzun.
- Teodora, horrek erantzun erreza dauka ba! Neronek aupatzen ditut Leon eta Fasio, baina ni nork aupatzen nau? Leonek ezin du berbarik egin alboka jotzen duen bitartean…eta Fasio totela da! Bietako zeinek animatuko nau ni?
- Arrazoi!
- Horregatik esaten diot nik neure buruari… Aupa, Maurizia!

Euskal Herriko sinbolo handia dugu Arratiako Maurizia. Bere burua animatzeko erabiltzen zuen oihu indartsuak, oihartzun handia utzi du gure plazetan. Garrasi feminista horrek, emakumezko pandero-jole eta oro har emakume sortzaileengan eragin du bulkada.

Azken bolada honetan, pandero-jotzaileak nabarmentzen ari dira. Tanxugueiras Galizan eta Neomak zein Amak taldeak gurean. Emakumez osatutako musikari ahaldunduak dira eta soinu eta estetika apurtzailez irudikatzen dituzte koplak. Tradizoari keinu eginez, aro berri bati dei egitera datoz plazetara. Kantu bihurtu den herria da gurea, belaunaldiz belaunaldi kontuak kantu bihurtu dituena. Kubatik heldutako poemak, arrantzan botatako oihuak, bonbardaketen miña, Zugarramurdiko kondairak…. Kantua, adierazpena da. Soinuak doinu eta hitzak istorio bihurtzen dituena.

Kantatzen duen herria ez da inoiz hilko. Udako kantuan ere oihuka dezagun AUPA MAURIZIA!

MAITE SARASOLA ISAZELAIA
Elorri bertso-eskolako kidea

Doinua: Gogoratuko zara

Kurtso hasieran behingoz hasi zen
Covidak nahi zidana ken.
Erasmusean Irlandara joan
Zen Maite halako baten.
"Bizitza osoko urte onena da"
Askok hala esan zidaten.
Ta bai, hala da ibili ostean
Munduari bira ematen.
Euskal Herrira bueltan dakarkit
Maleta bete oroitzapen.

Irlandarrekin irla ezagutu
Eta Pub-etan parranda.
Hizkuntza eta kultura ikasten
Ez ote nintzen joan ba?
Espero baino lehenago heldu zen
10hiletako langa.
Nire bigarren etxe bezala
Oroituko dut Irlanda.
Laburra baina esperientzia
Zoragarria izan da!

www.bilbaoeuskaraz.eus

EGIN ZAITEZ BABESLE!

Egin zaitez BERBAIZUKIDE eta babestu PREST! aldizkaria eta Deustualdeko euskalgintza.
20. urteurrenaren lamina jasoko duzu opari.

Informazio gehiago: prestharpide@gmail.com

DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA
Prest!

Berbaizu
euskara elkartea

ERRIBERAKO JAIAK 2022

EKAINAK 30 JUNIO
UZTAILAK 1-2-3 JULIO